



BANCO DE ALIMENTOS DE BIZKAIA

SALAKETA-KANALAREN ERABILERAREN PROZEDURA

Helburua

Salaketa-kanalaren helburua beste kontrolek oharkabeen igarotzen utzitako irregulartasunak antzemateko eraginkorra den tresna eskaintzea da. Tresna honekin Bizkaiko Elikagaien Bankuan egon litezkeen arazoak bideratu daitezke dela bere ekintzetan dela bere irudiaren edo egituraren edozein arlotan, akatsak edo aurreiritziak zuzendu eta saihesteko.

Irismena

El Salaketa-kanala Bizkaiko Elikagaien Bankuaren Bolondres, Bazkide, Emaile, Hornitzaile eta Erakunde Hartzaileei zuzenduta dago.

Prozedura

Basta con enviar un correo electrónico a denuncias@bancali-biz.org o rellenar el formulario correspondiente a Buzón de Denuncias en la web del Banco de Alimentos de Bizkaia: <https://www.bancali-biz.org/buzon-de-denuncias/>

El acceso a dicha cuenta de correo será exclusivo para la persona designada por

Prozedura

Mezu elektronikoa bidaltzea denuncias@bancali-biz.org helbidera edo Bizkaiko Elikagaien Bankuaren web orrialdean (<https://www.bancali-biz.org/buzon-de-denuncias/>) Salaketa Buzoiaren inprimakia betetzea nahikoa da.

Helbide elektronikoa horretan sartzeko baimena Bizkaiko Elikagaien Bankuak hautatutako pertsonarena izango da, salaketak kudeatzeko soilik.

Salaketa anonimoa izan daiteke. Hala eta guztiz ere, salatzaileak salaketaren jarraipena egin nahiko balu berarekin harremanetan jartzeko informazioa eman beharko du (izen-deiturak, telefonoa, helbide elektronikoa eta hala nahi bada beste edozein datu). Salaketa anonimoa izango ez balitz Bizkaiko Elikagaien Bankuak asmo onez egindako salaketaren egilearen aurka neurri legalak edo disziplinazko neurriak ez ekiteko konpromezua hartuko du.



BANCO DE ALIMENTOS DE BIZKAIA

Bizkaiko Elikagaien Bankuak onustez egindako salaketen egileen aurka errepresaliak hartzen dituzten erakundeko edozein langile edo kideren aurka neurri legalak edo disziplinazko neurriei ekiteko eskubidea beretzat gorde dezake.

Informazioaren kudeaketari dagokionez, jasotako salaketen erregistroa eratuko da non salaketa bakoitzaren kodea, jasotze-data, informazioa, erantzute-data eta gerora egiten den beste edozein jarraipena gordeko den.

Prozeduraren epeak

Prozeduraren epeak		
Fasea	Prozesua	Epeak
Komunikazioa	Jaso izanaren adierazpena	Salaketaren adierazpenetik 5 egun baliodun
	Ustezko diskriminazioa edo tratu kaltegarriaren gertaeren igorpena	Salaketaren adierazpenetik 5 egun baliodun
	Salaketa-komisioari informazioaren helegitea	Salaketaren adierazpenetik 5 egun baliodun
Analisia	Salaketaren analisia onartuko den erabakitzeke	Salaketaren adierazpenetik 10 egun baliodun
	Salatzaileari komunikazioa. Onartua izan da salaketa.	Analisiaren erabakiagatik 5 egun baliodun
	Salatuari komunikazioa	2 hilabete salaketa jaso zenetik
Ikerketa	Ikerketa-txostena	2 hil. + hilabete 1 salaketa jaso zenetik
	Salatuaren arrazoibideak	10 egun baliodun ikerketaren emaitza jaso zenetik
Ebazpena	Espedientearen ebazpena	15 e. baliodun bideragilearen txostena jaso zenetik

Analisia eta ebazpena

- ✓ Behin salaketa jasota salatutako pertsonaren intimitate, defentsa eta errugabetasunaren eskubideak bermatuko dira.
- ✓ Salaketak kudeatzen dituen pertsonak informazioa helbide elektronikoko edo gutun bitartez jasoko du, eta jaso duela adieraziko dio/e salatzaileei. Horrez gain, jasotako informazioa eta salaketarekin zerikusirik ez duten beste gai batzuk Bizkaiko Elikagaien Bankuak ezarritako salaketen batzordeko kideei helaraziko dizkie.



BANCO DE ALIMENTOS DE BIZKAIA

- ✓ Salaketen kasuan dagokion ikerketa egingo dute batzorde-kideek, aintzakotzat hartzen duten pertsonekin elkarrizketak mantenduz erabaki objektiboa hartzeko.
- ✓ Salaketen ikerketak salatutako ustezko arduradunarekin elkarrizketa pribatua izango du ere.
- ✓ Behin egoera ikertuta ondorioen txostena Bizkaiko Elikagaien Bankuaren Lehendakaritzari eta Zuzendaritza-Batzordeari helaraziko zaie, baita salaketa egin zuen pertsonari, hura anonimoa izan ez bazen betiere.

Konfidentzialtasuna

Datu Pertsonalak Babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, zure datuak Bizkaiko Elikagaien Bankuaren tratamendu-sisteman sartuko direla (IFK: G-48755433; egoitza soziala: Cervantes kalea 49, Basauri, Bizkaia) jakinarazten dizugu, salaketak gure webgunearen bidez kudeatzeko helburuarekin. Indarrean dagoen araudia betez, Bizkaiko Elikagaien Bankuak datuak lehen aipatutako aginduak betetzeko behar-beharrezkoa den epean soilik gordeko dituela jakinarazten du.

Kontrakoa jakinarazten ez diguzun bitartean, zure datuak ez direla aldatu eta edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzen duzula baita aipatutako helburuetarako datuak erabiltzeko baimena ematen duzula ulertzen dugu.

Jakinarazten dizugu zure datuak zure adostasunaren arabera tratatuko ditugula.

Bizkaiko Elikagaien Bankuak datuak modu zilegi, leial, garden, egoki, mugatu, zehatz eta eguneratua tratatuko dituela jakinarazten du. Hori dela eta, Bizkaiko Elikagaien Bankuak bidezko neurri guztiak hartzeko konpromezua hartuko du datu okerrak berehala ezaba edo zuzen daitezzen.

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ematen zaizkizun eskubideekin bat etorri, zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, tratamendua mugatzeko, ezabatze, transferitzeko eta haien tratamenduari aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, datu horiek tratatzeko baimenaren eskubidea barne. Horretarako, gorago adierazitako posta-helbidera



BANCO DE ALIMENTOS DE BIZKAIA

bidali beharko duzu eskaera, edo, bestela, boluntariotza@bancali-biz.org helbide elektronikora, edo 946053779 telefonora.

Datuak biltzeko formularioa bidalita, Bizkaiko Elikagaien Bankuaren pribatutasun-politika onartzen duzula adierazten duzu.